

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 41.230 euroekin finantzatuko du ANFASen etxebizitzazerbitzua

Pejenaute kontseilariak gaur bisitatu du ANFASek adimen-urritasuna duten haur eta gazteentzako nahiz haien anai-arrebentzako antolatutako Iruñeko Hiri Kanpamentua

Martes, 28 de agosto de 2012

Nafarroako Gobernuak 41.230 euroekin finantzatuko du ANFASen etxebizitza-programa. Programa horren helburua adimen-urritasuna duten pertsonei beren etxe propioaren ahalik eta etxe antzekoena ematea da, haien beharrei egokituta, beren autonomia eta gaitasunak garatu ahal izateko eta beren ongizate fisiko ongizate emozionala bermatuko diena.

Kopuru hori, zehazki, babestutako etxebizitza finantzatzeko izango da Barañainek emandako laguntzarekin.

ANFASek bi etxebizitza-modalitate kudeatzen ditu, bideratuta dauden pertsonen profilaren arabera eta pertsona horiek aurkeztzen dituzten laguntza-beharren arabera: babestutako etxebizitza Barañainen laguntzekin eta Zangoza nahiz Tafallako babestutako etxebizitzak.

Barañaingo etxebizitzak ostatu, mantenu eta laguntza-zerbitzu etengabeko zerbitzua eskaintzen die adimen-urritasun arina, autonomia-maila handia eta baliabide pertsonalen barietate zabala garatzeko gaitasuna duten pertsonei, bereziki etxeko bizi-eremuan, komunitatearen erabileran eta autodeterminazioan. Etxebizitza hori lau pertsonentzat da eta urtean 365 egunez zabalik izango da.

Zangoza eta Tafallako babestutako etxebizitzek, berriz, honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: laguntza, ostatu, mantenu, arreta, etengabeko laguntza eta autonomia pertsonalaren sustapeneko zerbitzuak. Zerbitzu horiek, alde batetik, adimen-urritasuna duten zonaldeko pertsonentzat dira, eta familiako etxean egon ezin direnak baldintza sozio-familiar edo laguntza-baldintza egokiak ez izateagatik; bestetik, adimen-urritasuna izan eta zerbitzu horren beharra duten beste zonalde batzuetako pertsonentzat.



Pejenaute kontseilaria haurrekin eta ANFASko ordezkariekin solasean ANFASen hiri-kanpamentura egindako bisitan.

2010eko erdialdera, Tafalla eta Zangozako etxebizitzak ANFAS elkartearen eta Nafarroako Mendekotasunerako Agentziaren artean izenpetutako kontratuaren bidez finantzatzera pasa ziren.

Kontseilariak ANFASko hiri-kanpamentura egindako bisita

Bestalde, Gizarte Politiken kontseilari Jesús Pejenaute-k ANFASek Iruñean antolatzen duen hiri-kanpamentua bisitatu du gaur goizean uda-garaian adimen-urritasuna duten haur nahiz gazteen familiei lasaialdi bat emateko (Down-en sindromea, Autismoa, Asperger, TEA, TGD, Rett sindromea... eta haien anai-arrebentzat).

Iruñeko hiri-kanpamentua 7 astez luzatuko da uztailean eta abuztuan, Iruñeko Amaiur ikastolaren instalazioetan. Astelehenetik ostiralera burutzen da, 09:00etatik 14:00etara. 8 talde eta 34 parte-hartzaile hartu ditu, eta 4 arduradun profesionalekin, 2 zaintzaile profesionalekin eta 79 boluntarioekin funtzionatu du. Kanpamentuak aisialdiko zenbait jarduera antolatu ditu, haien artean, suhiltzaile-etxera, DYARA, Planetariora, gatz-tailerretara, hatz-pinturaren tailerretara, eskulanean tailerretara, igeriketa eta boloetako jardueretara egindako bisitak.

Iruñeko hiri-kanpamentu horrez gain, ANFASek beste bat antolatu du Baztan/Bidasoan. Bi aste iraun ditu eta uztailean burutu da. ANFASko egoitzan egin da, eta 8 parte-hartzaile izan dira bertan. Halaber, "Udan ere" izeneko 4 asteko beste bi kanpamentu antolatu ditu. Iruñean eta Tuteran egiten dira, biak ala biak 09:00etatik 14:00etara, janari-zerbitzua barne. Adimen-urritasuna edota garapenean atzerapena duten Iruñeko eta Tuterako 25 eta 9 pertsonak parte hartu dute bertan.